



# BERBA GALDUEN PUTZUA

*Seve Calleja*

*ELURRETA-ren itzulpena  
Oscar Domínguezen marrazkiak*

**Desclée De Brouwer**



Lurraren barren-barrean, badago ezkutuko putzu misteriotsu bat; hara botatzen zituzten tiranoek, maitale saminduek, jainko jeloskorrek eta beste hainbat izaki gaiztok beren biktimak, horrela, aitortu ezin zituzten barruko sekretuetatik libratuko zirelakoan. Horrek argitzen du zergatik dioten askok aieneak, kexak eta zurrumurruak entzuten dituztela itsaslabar, bidezidor bakarti edo etxe huts abandonatuen inguruan: zirrikitu eta pitzaduretatik ihes egiten duten oihartzunak izango dira, izan ere.

Putzu hori agian haitzuloa da edo, beharbada, lurrazpiko ibaia izango zen garai batean, eta istorio harrigarriak daramatza oraindik, ura bezalaxe bata bestearekin gurutzatu eta nahasten diren istorioak.

Beharbada, noizbait putzu hori gordeleku gisa erabili dute gaizkileek eta iheslariek, gerrari bihozgabeek, maitale setatiek... baina dirudienez, oraindik ez da inor iritsi putzuaren hondora.



Zenbait lekutan Gurarien Putzua, Putzu Mingotsa, Piraten Haitzuloa edo Deabruaren Zintzurra deitzen diote; izan ere, irudimenean, norberak han kokatzen baitu gehien ikaritzen duena batzuetan, gehien irrikatzen duena bestetan.

Gutxi esploratutako putzu babesgabe horretara erori dira ipuin hauetako pertsonaia nagusi asko. Bizirik jarraitzeko edo jendeak gogora ditzan egin behar izan dute hori, beharbada.

Gaur egun, kontuotaz gehien dakitenek esaten dute putzu horrek ezkutatzen dituen misterio eta sekretuak ateratzea oso zaila dela, ezen putzuaren sakon-sakonean izpiritu edo iratxo berekoi bat bizi omen da, eta hark ez omen dio inori uzten berea den ezerekin handik irteten. Horregatik da ia ezinezkoa handik inor bizirik ateratzea, eta are gutxiago, iratxoaren ondasunen batekin. Gehienez ere, hondora iristea lortzen duenak preso dagoenen bati lagun diezaioke irteten, bidea nondik nora den kontatuz beste inork entzun gabe, edota gogoan hartu ahal izango du misteriozko formularen bat, isilpeko sorginkeriaren bat, edo, besterik ez bada, haien istorioetatik jausitako berbetako batzuk, orain, norarik gabe, hegan ilunpetan dabiltzanak.

